

C R U C E S / G U R U T Z E T A

EL PROYECTO
TIEMPO DE SILENCIO
ISILTASUN GARAIA
PROIEKTUA

Una memoria viva de la resistencia al
franquismo con la voz de sus protagonistas

Frankismoaren kontrako erresistentziaren
memoria bizia, protagonisten ahotik



RAMÓN
RUBIAL
FUNDAZIOA

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen
Institutua

gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

La resistencia al franquismo, desde el fin de la Guerra Civil hasta la recuperación de la democracia, tuvo muchas y diversas manifestaciones. Y fue protagonizada por numerosas personas, individualmente o encuadradas en organizaciones políticas, sindicales, vecinales, o de otros ámbitos asociativos, a menudo de forma clandestina. Su activismo y compromiso, no siempre reconocidos públicamente, fueron muy importantes para denunciar la dictadura y reivindicar un régimen de libertades.

Por eso, la Fundación Ramón Rubial ha emprendido un proyecto para recuperar y preservar del olvido la memoria de esta resistencia y de sus protagonistas. Pretendemos crear una base testimonial y documental que guarde hechos y vivencias que quizá no figuran en los libros de historia de esta etapa de nuestro pasado reciente, pero que son valiosos y resultan imprescindibles para comprenderla.

Este proyecto tiene como título “Tiempo de Silencio”, como la novela homónima de Luis Martín Santos donde se refleja la realidad de una sociedad que vive el régimen represivo. Consiste en recoger mediante grabaciones y documentos los testimonios y experiencias de las personas -cada vez menos, desgraciadamente- que vivieron y protagonizaron esa época, así como la información que puedan aportar sus allegados. Son historias de vida que nos ayudan a guardar la memoria de esa resistencia para el

Frankismoaren kontrako erresistentziaren adierazpenak ugariak eta era askotakoak izan ziren Gerra Zibilaren amaieratik hasi eta demokrazia berreskuratu zen arteko aldian. Pertsona ugari izan ziren horietan protagonista, bai bakarka bai erakunde politikoen, sindikatuen, auzo elkarten edo bestelako elkarten baitan; eta modu klandestinoan egin zuten, askotan eta askotan. Haien aktibismoa eta konpromisoa, beti ez bada ere jendaurrean aitortua izan, garrantzi handikoa izan zen diktadura salatu eta askatasun erregimen bat erreibindikatzeko.

Horregatik jarri du abian Ramón Rubial Fundazioak proiektu hau, hain zuzen ere erresistentzia haren eta hartako protagonisten memoria berreskuratu eta zaintzeko. Gure iragan hurbileko garai horri buruz Historiako liburuetan beharbada agertzen ez diren gertaerak eta bizipenak gordeko dituen lekukotasun eta dokumentu banku bat sortu nahi dugu, balio handikoak eta ezinbestekoak baitira horiek guztiak hura ulertu ahal izateko.

“Isiltasun Garaia” du izenburua proiektuak, Luis Martín Santosen izen bereko eleberriak bezala, bertan ezin hobeto islatzen baita errepresio erregimenean bizi izan zen gizartearen errealitatea. Grabazioen eta dokumentuen bitartez, garai horretan bizi eta protagonista izan zirenen -gero eta gutxiago, zoritxarrez- lekukotasunak eta esperientziak bildu nahi dira, eta baita haien hurbilekoek eskain dezaketen informazio guztia ere. Erresistentzia haren memoria gordetzen laguntzen diguten bizi istorioak dira, belaunaldi



conocimiento de las nuevas generaciones y el trabajo de los historiadores.

“Tiempo de Silencio” echó a andar de la mano de la Fundación Ramón Rubial en Hernani, continuó en Eibar, Irún, Hondarribia, Urretxu, Zumárraga, Margen Izquierda, Zona Minera y Bilbao.

Este año nos hemos acercado con este proyecto a Cruces, con el fin de recoger las vivencias de esa etapa gris y opresiva en la localidad. Los testimonios recopilados recorren los tiempos que van de la II República a nuestros días, atravesando la Guerra Civil, la larga dictadura franquista, la transición democrática y la violencia terrorista que ha amenazado la convivencia democrática hasta ayer.

En esta memoria viva tiene cabida la resistencia organizada al franquismo, la desafección al mismo en la vida cotidiana y la cultura de la militancia política o sindical; pero también la dureza de la vida durante la postguerra, las condiciones laborales, la carestía de la vivienda, el papel de las mujeres, el problema de las drogas, el terrorismo, o la irrupción de la crisis de 2008 tras una etapa de bienestar económico.

En este banco de memoria construido con la aportación de decenas de personas hay recuerdos personales y vivencias compartidas con amistades, compañeras y compañeros. Una memoria que desborda los límites de Cruces.

berriek ezagutu eta historiagileek beren lanerako eduki dezaten.

“Isiltasun garaia” Hernanin jarri zuen abian Ramón Rubial Fundazioak; handik, Eibarren, Irunen, Hondarribian, Urretxun, Zumarragan, Ezkerraldean, Meatze eremuan eta Bilbon jarraitu zuen.

Aurten Gurutzetara hurbildu gara proiektuarekin, bertan garai gris eta zapaltzaile hartako bizipenak lortzeko asmoz. Bildutako lekukotasunek II. Errepublikaren garaitik gaur egun arteko aldia hartzen dute, tartean daudelarik Gerra Zibila, diktadura frankista luzea, trantsizio demokratikoa eta atzo arte bizikidetza demokratikoa mehatxatu duen indarkeria terrorista.

Memoria bizi honetan lekua dute frankismoaren kontrako erresistentzia antolatuak, haren gaitzespenak eguneroko bizitzan eta militantzia politiko edo sindikalaren kulturak; baina lekua dute, halaber, gerraondoko bizimoduaren gogortasunak, lan-baldintzek, etxebizitzaren garestitasunak, emakumeen paperak, drogen arazoak, terrorismoak edo 2008ko krisiaren indarrak ongizate ekonomikoko garai baten ondoren.

Dozenaka lagunen ekarpenarekin osatu den memoria banku honetan bai oroitzapen pertsonalak, bai senideekin, lagunekin eta kideekin partekatutako bizipenak daude. Memoria horrek Gurutzetaren mugak gainditzen ditu.





El proyecto “Tiempo de Silencio” en Cruces
ha sido una experiencia muy enriquecedora
y desde la Fundación Ramón Rubial
queremos agradecer la participación de:

Gurutzetan oso esperientzia aberasgarria
izan da “Isiltasun garaia” proiektua, eta
Ramón Rubial Fundazioak eskerrak eman
nahi dizkizue, parte hartzeagatik:

M^a Angeles Acebrón Santiago
Alonso Carmona Pajuelo
Benito Castañeda Bolaños
Luisa Corrales Belsue
Ramón Fernández Villares
Antonio Franco Vicente
Francisco García Domínguez
Rosa María García Santibañez
Jesús M^a González Suances
Inés López Redondo
Regina Morla Vázquez
M^a Francisca Rodríguez Bueno
Pepe Torres Romero